

BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA

PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE

KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN

EUSKARA ETA LITERATURA

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2021eko Maiatza / mayo 2021

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



Proba honek bi atal ditu: bata testuaren ulermenari eta hizkuntzaren ezagutzari lotua; eta bestea, idazmenari. Atal bakoitzak bost (5) puntu balio du.

Idazmenean, gai beraren inguruko bi testu proposatzen dira: luzea eta laburra. Azterketariak aukeratu du zein idatziko duen euskaraz eta zein gaztelaniaz. Testu bakoitzak 5 puntu balio du*. Hizkuntza bakoitzaren azterketaren emaitza kalkulatzeko, bi atalen arteko batazbestekoa egingo da:

- Testuari lotutako galderen puntuazioa (5 puntu)
- Idazmenaren puntuazioa (5 puntu)

Gaztelania eta literatura proba ere modu berean baloratuko da.

* Idazmenean, testu bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz idatzi behar dira. Bi testuak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatziz gero, baliogabetu egingo litzateke idatzi ez den hizkuntzaren idazmen atala.

En esta prueba se puntuará de manera separada la expresión escrita del resto de las cuestiones. Las primeras siete cuestiones sobre el texto se puntuarán con un total de 5 puntos.

La expresión escrita, por su parte, se puntuará también con un máximo de 5 puntos. El texto que el alumno escoja para escribir en castellano, ya sea el texto corto o el texto largo, se puntuará con 5 puntos, por lo que la puntuación total del examen de Lengua Castellana saldrá de la media de las dos puntuaciones:

- Puntuación de las cuestiones sobre el texto
- Puntuación de la expresión escrita

La prueba de euskara se valorará de la misma manera.

En el caso de que algún alumno o alumna escriba los dos textos en castellano o en euskara, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.

JARRAIBIDEAK

1. Irakurri arretaz testuak eta galderak.



2. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
3. Saiatu galdera guztiei erantzuten.
4. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zeuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
5. Bukatutakoan, zure erantzunak berrikusi eta akatsak zuzendu: erreparatu ortografiari eta puntuazio zeinuei. .

INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.
4. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
5. Revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.

1ª PARTE

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2021eko Maiatza / mayo 2021

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

Con acento: idiomas y prejuicios

Aprender a la perfección una lengua como adulto es casi imposible, según las investigaciones de la neurolingüística

El Periódico, 23 de enero del 2021. 12:43: Rosa Ribas



Pep Guardiola, bebiendo cerveza en la Oktoberfest / FELIX HOERHAGER (EFE)

¿Es usted griega? Esta es una pregunta que me han hecho muchas veces en Alemania. Es así como descubrí que el acento de los griegos y los hispanohablantes en alemán se parece mucho.

En las películas de espías suelen aparecer agentes de los que se afirma que hablan varias lenguas extranjeras “sin acento” y los vemos haciéndose pasar por franceses o polacos sin que los interlocutores noten nada sospechoso. Auténticos fenómenos, porque el resto tras años aprendiendo el idioma, conservamos el acento.

Aprender a la perfección una lengua como adulto es casi imposible. Pero eso no quiere decir que no haya que intentarlo. Cuanto más lo aproximes al acento estándar más fácil es que se te entienda. De eso se trata, de poder comunicarse con plenitud. De modo que escuchas, analizas, aprendes, imitas.

Aprendes las palabras y sus connotaciones culturales. Pero las palabras no son inocentes, con ellas vas asimilando también una nueva cultura. Y toda cultura arrastra consigo una enorme carga de prejuicios y estereotipos que se cuelan como polizones y te van infiltrando sin que te des cuenta.

A medida que mi oído para el idioma se afinaba, distinguía cada vez mejor las diferencias dialectales y adquiría, sin darme cuenta, los prejuicios lingüísticos que se les asociaba. Y empecé a encontrar pesado y lento el acento bávaro, del mismo modo en que me daba risa el



bruto acento sajón, el vienés me sonaba estirado y arrogante, el berlinés duro y proletario. En algún momento me di cuenta de que yo, siendo extranjera, había adquirido los prejuicios culturales alemanes.

Fue el momento en el que decidí que me plantaba, que bastante tengo con los prejuicios que traigo “de casa”. A la que te descuidas, se escapa un “es que los XXX son siempre así” o un “eso es típico de los de YYY”, aunque ni siquiera te lo creas. Y es que los prejuicios nunca llegan a ser exterminados por completo, siempre te dejan restos. Pero bastante cuesta tratar de liberarse de los que te ha endosado tu propia cultura de origen como para ahora cargar con un paquete de prejuicios nuevos. Así que, como dije, aquí, donde sí que puedo decidir, me planto. Y le pido a ese acento que siempre voy a conservar que me lo recuerde y me proteja.

<https://www.elperiodico.com/es/opinion/20210123/acento-articulo-rosa-ribas-11470700>



1. Responda a las siguientes cuestiones sobre el texto: (1 punto)

A. ¿Dónde puede estar publicado este texto? Dé dos razones que apoyen su respuesta:

B. Señala de qué tipo es el texto periodístico (informativo o de opinión) y explique por qué lo cree así

2. Exprese en una frase (máximo 10 palabras) el tema del texto (1 punto)

3. ¿Cuál de estas afirmaciones es correcta según el texto? Subráyela: (0.5 puntos)

- a) Los prejuicios se llegan a exterminar por completo.
- b) Con las palabras, vas asimilando también una nueva cultura.
- c) Aprender una lengua como adulto es imposible.
- d) Tras años aprendiendo un nuevo idioma, perdemos el acento nativo.



4. En las oraciones siguientes hay algún error, subráyelo y escriba correctamente las frases: (1 punto)

a) El acento de los griegos y los latinos en alemán se parece mucho.

b) Cuanto más lo aproximes al acento culto más fácil es que se te entienda

-----c) Y empecé a encontrar ligero y lento el acento bávaro.

----- d) Había adquirido los prejuicios pedagógicos alemanes.

5. Sustituya los términos subrayados por sinónimos, teniendo en cuenta el sentido que tienen en el texto (0.30 puntos)

	SINÓNIMOS
"...nunca llegan a ser exterminados por completo. "	totalmente, absolutamente, ...
Cuanto más lo aproximes al acento estándar más fácil	acercar, asemejar, equiparar, ajustar, ...
"...había adquirido los prejuicios culturales alemanes."	obtenido, logrado, conseguido, alcanzado, ...

**6. Responda a las siguientes cuestiones: (0.5 puntos)**

a) Ponga dos ejemplos de adverbios que aparezcan en el texto.

b) Cite dos sustantivos que aparecen en el artículo que ha leído.

c) Escriba dos adjetivos que aparezcan en el texto.

7. Durante el año pasado, 2020, recordamos a Miguel Delibes en el centenario de su nacimiento o a Benito Pérez Galdós en el de su fallecimiento. Relacione cada autor con su obra. (0,70 puntos)

Obras: "Fortunata y Jacinta", "Los Santos Inocentes", "La sombra del Ciprés es alargada", "Tristana", "Cinco horas con Mario", "Episodios Nacionales", "El hereje"

Miguel Delibes	Benito Pérez Galdós

2. ATALA

EUSKARA ETA LITERATURA

2021eko Maiatza / Mayo 2021

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

2. atala

EUSKARA ETA LITERATURA

Irakurriaren ulermena (5 puntu)

Irakurri testua eta erantzun ondoren datozen galderari. Galdera bakoitzaren ondoan dator puntuazioa.

Zeintzuk dira munduan gehien ikasten diren hizkuntzak?

2016-06-02 / 1359 bisitari

Duolingo munduan gehien ikasten diren hizkuntzen inguruko azterlana burutu du. Oro har, ikerketak espero zitezkeen emaitzak eman ditu, baina badira zenbait datu bitxi ere.



Mundu globalizatu batean bizi gara eta egunero herrialde desberdinetako pertsonekin egin ahal dugu topo. Horregatik, hizkuntza desberdinen ezagutza ezinbestekoa bilakatu da bai goimailako ikasketetarako zein bizitza profesionalerako. Ondorioz, gero eta gehiago dira bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasten ari diren pertsonak. Baina zein hizkuntza ikasten da gehien? Zeren baitan erabakitzen da hizkuntza bat

edo beste ikastea?

Internet bidez hizkuntza desberdinak ikasteko aukera ematen duen [Duolingo](#) enpresak munduko herrialde desberdinetan gehien ikasten diren hizkuntzak zeintzuk diren aztertu du. Horretarako, hiru hilabetez, 194 herrialde desberdinetan dituen 120 milioi erabiltzaileen eguneroko jardura aztertu du.

Imajinatu ahal izango zenuten moduan, ingelesa da mundu osoan zehar gehien ikasten den hizkuntza. Estatu guztiak aintzat hartzen badira, bi herenetan ingelesa gehien ikasten diren bi hizkuntzen artean aurkitzen da. Gezurra badirudi ere, Estatu Batuetan ingelesa da gehien ikasten den bigarren hizkuntza (gaztelaniaren atzetik hain zuzen ere). Ingeles ikasle gehien dituzten herrialdeak, batez ere, **Latinoamerika**, **Ekialde Hurbila** eta **Asiako Hego-ekialdean** aurkitzen dira.

Ingelesaren atzetik, frantsesa eta gaztelania aurkituko lirateke. Horrela, frantsesa gehien ikasten diren bi hizkuntzetako bat da herrialdeen % 58an eta gaztelania, aldiz, % 46an. Hala ere, gaztelaniak hiztun edo ikasle gehiago ditu: ikasleen % 17 gaztelania ikasten ari da eta % 11 frantsesa. Frantsesaren kasuan, ikasle gehienak **Afrikan** biltzen dira. Gaztelaniak, berriz, arrakasta handiagoa du ingelesa ama-hizkuntza duten herrialdeetan.



Duolingok egindako ikerketa honek baditu zenbait ondorio bitxi. Adibidez, **Suedian** gehien ikasten den hizkuntza suediera bera da. Suedian bigarren hizkuntza bat ikasten ari direnen % 27 suediera ikasten ari dira. Nola da posible? Erantzuna, noski, immigrazioan aurkitu behar da. Izan ere, Suediako biztanleriaren artean % 16 inguru Suediatik kanpo jaioa da. Antzeko fenomenoak ematen da, ikusi dugun bezala, **Amerikako Estatu Batuetan** (biztanleriaren % 13,1 atzerriko beste herrialderen batean jaioa da). **Norvegian** ere, bertako norvegiara da gehien ikasten den bigarren hizkuntza. Kasu honetan ere immigrazioa da arrazoi nagusia.

Ikerketak bestelako datu bitxiak ere utzi ditu. **Indian**, adibidez, hindustanerarekin batera hizkuntza ofiziala izan arren, ingelesa da gehien ikasten den lehen hizkuntza. Bitxia bada ere, bertako biztanleriaren % 10 inguruk soilik ingelesez hitz egiten du. Kasu horretan, ingelesa goi-mailako hezkuntza eta administraziorako hizkuntza bilakatu da Indian eta, ondorioz, hizkuntza hori hitz egiten ez duenak mugatua izaten du bere ibilbide profesionala.

(moldatua) <http://www.gazteberri.eus/?p=4621>

**1. Zer azaltzen du artikularen sarrerak? (0.5 ptu)**

- A. Ikerketaren helburua eta nola bete den.
- B. Ikerketaren emaitza zehatzak.
- C. Artikuluaren edukia aurreratzen du era orokorrean.
- D. Artikuluaren informazio nagusiak azaltzen ditu.

2. Zertan oinarritzen da artikulua honetan ematen den informazioa? (0.25 ptu)

- A. Hizkuntza gehien irakasten duen enpresak, Duolingok, emandako ikastaroetan.
- B. Hizkuntzak internet bidez ikastea ahalbidetzen duen enpresak, Duolingok, egindako ikerketan.
- C. Herrialde askotatik hizkuntzen irakaskuntzari buruz jaso diren datuetan.
- D. Duolingo enpresak bere erabiltzaileen artean egin duen galdeketa.

3. Informazio hauetako zein da, artikularen arabera, bitxikeria? (0.25 ptu)

- A. Latinoamerikan gehien ikasten duten bigarren hizkuntza ingelesa da.
- B. Suediera da Suedian gehien ikasten den bigarren hizkuntza.
- C. Ingelesa da herrialde gehienetan gehien ikasten den bigarren hizkuntza.
- D. Afrikako ikasle gehienek ikasten duten bigarren hizkuntza frantsesa da.

4. Zein dira munduko herrialdeetan gehien irakasten diren hizkuntzak, artikularen arabera? (0.25 ptu)

- A. Herrialde gehienetan gehien irakasten den bigarren hizkuntza bertako hizkuntza da.
- B. Herrialde gehienetan irakasten diren bigarren hizkuntzak ingelesa eta frantsesa dira.



- C. Ama-hizkuntza ingelesa duten herrialdeetan gaztelania irakasten da gehien.
- D. Frantsesa da Afrikako herrialdeetan gehien irakasten den bigarren hizkuntza.

5. Zer adierazten du idazleak artikulua hiruugarren paragrafoaren hasiera honetan: “Imajinatu ahal izango zenuten moduan...” (0,25 ptu)

- A. Irakurleak irakurtzera animatu nahi ditu.
- B. Gaiarekiko interesa piztu nahi du.
- C. Irakurleak gai honetan duen interesa.
- D. Irakurlearekiko hurbiltasuna agertu nahi du.

6. Zein da testuaren helburua? (0.5 ptu)

- A. Duolingo enpresaren baliabideak azaltzea.
- B. Atzerriko hizkuntzak ikastearen garrantzia azpimarratzea.
- C. Ikasten diren hizkuntzei buruzko informazioa ematea.
- D. Ikasleak hizkuntza batzuk ikastera animatzea.

7. Non aurki dezakezu artikulua hau? (0.75 ptu)

- A. Blog batean.
- B. Entziklopedia batean.
- C. Hizkuntzetan espezializatutako aldizkari batean.
- D. Egunkari bateko albisteen artean.



8. Artikuluaren irakurri eta gero, zeren baitan erabakitzen dute ikasleek hizkuntza bat edo bestea ikastea? (0.75 ptu)

9. Azaldu beste era batera esaldi honen esanahia: “Ingelesa goi-mailako hezkuntza eta administraziorako hizkuntza bilakatu da Indian” (0.75 ptu)

10. Zure ustez, zergatik ikasten dute hainbeste ikaslek euskara Euskal Herrian? (0.75 ptu)

3. ATALA

IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



<p>Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran, bai testu-generoan. Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.</p> <p>KONTUZ! Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu; eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatzen badituzu, ez da kontuan hartuko atal hori.</p>	<p>En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tratan sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual. Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera.</p> <p>Pero, CUIDADO, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, no se tomará en cuenta este apartado en la puntuación de la prueba.</p>
---	---

TESTU LABURRA (5 puntu)	TEXTO CORTO (5 puntos)
<p>Emaila idatziko diozu lagun bati (90-100 hitz)</p> <p>Egoera: Hizkuntza-eskolan matrikulatuko zara, baina ez duzu oso argi zer hizkuntza aukeratu, eta ez duzu ikastaroa bakarrik egin nahi.</p> <p>Ataza: email bat idatzi behar diozu lagun bati, zurekin matrikula egin dezan konbentzitzen saiatuz, eta hizkuntza berri bat ikasteak dituen abantailak azaldu.</p> <p>Testuak 90-100 hitz eduki behar ditu.</p>	<p>Debes escribir un email a un amigo (90-100 palabras)</p> <p>Situación Vas a matricularte en la escuela de idiomas pero no tienes muy claro que idioma elegir y no te apetece hacer el curso solo</p> <p>Tarea: Debes escribir un email a un amigo tratando de convencerle para que se matricule contigo, explicándole lo ventajoso de aprender un nuevo idioma</p> <p>El texto debe tener entre 90-100 palabras.</p>

TESTU LUZEA (5 puntu)	TEXTO LARGO (5 puntos)
<p>Iritzia eman behar duzu hizkuntza bat ikasteak abantailak dituen edo ez (180-200 hitz)</p> <p>Egoera. Gaur egun ikasle gehienek txiki-txikitatik ikasten dute euren ez den beste hizkuntza bat eskolan. Ondoren, bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasten hasten dira.</p>	<p>Debes opinar sobre lo ventajoso o no de aprender un idioma. (180-200 palabras)</p> <p>Situación: Hoy en día la mayoría del alumnado estudia un idioma diferente al suyo en la escuela desde edad muy temprana. Posteriormente comienzan a estudiar una segunda e incluso tercera lengua.</p>



Ataza Amarena ez den beste hizkuntza bat ikasteari buruzko iritzia emango duzu
Galdera hauek lagungarriak izan daitezke zure iruzkinerako: zein adinetan da ona hizkuntza bat ikasten hastea? Zergatik? Zein dira ikasteko arrazoiak? Hizkuntza hori hitz egiten den herrialdean bizi behar al da behar bezala ikasteko? Hizkuntzak ikastea baliabide ekonomikoak dituen jendearentzat da? Zergatik ikasi behar dut beste hizkuntza bat? Ez al litzateke hobe besteok nire hizkuntza ikastea?

Testua antolatzeko kontuan hartu egitura hau:

- Sarrera: filma aurkeztu eta adierazi hari buruz duzun iritzia.
- Gorputza: bi paragrafotan idatzi iritzi horren aldeko edo kontrako argudioak.
- Ondorioa: azken paragrafoan esandakoaren ondorioak idatzi.

Tarea: Vas a dar tu opinión sobre el estudio/aprendizaje de idiomas diferentes al materno

Las siguientes preguntas pueden ser de ayuda para tu comentario: ¿A qué edad es bueno comenzar a estudiar un idioma?, ¿Cuales son las diferentes razones para aprenderlo? ¿Es necesario vivir en el país donde se habla ese idioma para aprenderlo correctamente? ¿El estudio de idiomas es para gente con recursos económicos? ¿Por qué debo aprender otro idioma? ¿No sería mejor que el resto del mundo estudiara mi lengua?

A la hora de organizar el comentario ten en cuenta la siguiente estructura:

- Introducción: Presenta el tema del que vas a hablar y da tu opinión
- Desarrollo: En dos párrafos escribe argumentos que justifiquen tu/tus opiniones
- Conclusión: en un último párrafo escribe las conclusiones

Eta kontuan hartu aholku hauek:/ Tened en cuenta estos consejos:

- Boligrafoz idatzi
- Saiatu garbi idazten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua idatzibehar duzula.
- Zirriborro bat egin ideiak hobeto antolatzeko.
- Zirriborrea azterketarekin batera eman.
- Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.
- Zure idazlana zuzentzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - Ea eskatutakoa bete duzun
 - Ea testu egokia eta koherentea idatzi duzun
 - Ea testu zuzena idatzi eta lexiko eta egitura egokiak eta aberatsak erabili dituzun.

- Utilizar bolígrafo para escribir.
- Intentar hacer una letra clara.
- Recordar que es necesario llegar a la cantidad de palabras solicitadas.
- Es conveniente hacer un borrador para organizar las ideas.
- Entregar el borrador con el examen.
- Antes de entregar la prueba, revisar lo escrito.
- Para corregir el escrito se tendrán en cuenta estos criterios:
 - contestar a lo solicitado.
 - escribir un texto adecuado.
 - utilizar una lengua correcta, coherente y rica.

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LUZEA (5 puntu) / TEXTO LARGO (5 puntos)

Iritzi testua / Texto de opinión (180-200 hitz/palabras)

.....
.....
.....
.....

5.....
.....
.....
.....
.....

10.....
.....
.....
.....
.....

15.....
.....
.....
.....
.....

20.....
.....
.....

.....
.....

25.....

.....
.....
.....
.....

30.....

.....
.....
.....
.....
.....

